

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Cervantesek eta Shakespearek Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdiko programa inspiratuko dute haien heriotzaren 400. urteurrenean

Antzerki Klasikoaren Jaialdiak OT4OS KLA2IKO2 (Beste klasiko batzuk) atala hain ohikoak ez diren proposamen eszenikoetara bideratu du

Asteartea, 2016.eko ekainak 21


Gaur goizean aurkeztu da prentsaurrekoan [Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdiko](#) hamazazpigarren edizioa; oraingo honetan, William Shakespeare eta Miguel de Cervantesen heriotzaren 400. urteurrenarekin egokitzen da, eta haiek aurtengo udarako programatutako muntaien zati bat inspiratuko dute, uztailaren 22tik abuztuaren 4ra.

La consejera de Cultura, Deporte y Juventud, Ana Herrera, ha presentado el programa junto al director general de Cultura, Fernando Pérez, y el alcalde de Olite, Andoni Lacarra.

La Cava (392 lagunentzako lekua) izango da asteburuetak emanaldien agertokia, urteko muntaia aipagarrienen eta berritzaileen gunea, eta azken hilabeteetan Estatuan estreinatu direnak. Erriberriko jauregiko areto batzuk ere erabiliko dira, Los Arcosen aretoa edo Armen Patioa, adibidez, formatu ertaineko obretarako.

Karlos III. a plaza eta Teobaldosen plaza kaleko emanaldietarako erabiliko dira, eta egoitza artistikoko masterclass eta proiektua ikastetxe publikoan egingo dira. Jaialdiak 350.000 euroko aurrekontua du aurten.

Cervantes eta Shakespeareren urteurrena



Programaren kartela.

El Quijote inspiratzen du **TDiferencia** konpainiaren lanak, eta azen horrek *Los chismes del Quijote y su amigo* obra taularatuko du. Gainera, **Compañía Nacional de Teatro Clásico** eta **Ron Lalá**-k Cervantina aurkeztuko dute, "Cervantesen testuei buruzko bertsio eta dibertsioen" proposamen bat. **Teatro del Finikitok** *Don Quijote* eskainiko du, obra horren episodio gogoangarrienekin. Eta *El Quijote en la patera* da **Teatro Clásico de Sevilla**ren proposamena (familientzat).

Bestalde, Shakespeare presente izango da ondorengo obretan: *Macbeth ya somos el olvido que seremos*; *Micro Shakespeare*; *Mucho ruido y pocas nueces*; *Ricardo III*; edo *Trabajos de amor perdidos*.

Obra horiekin batera, jaialdiak, British Council eta Shakespeare's Theatre-ren laguntzarekin, **The Complete Walk** programatu du, Londresen estreinatutako proiektu bat, eta egile ingelesaren ondarea errebasatzen du bere obren istorioak kokatzen diren agertoki beretan filmatutako **37 film laburren** bidez. Haien artean, Erriberriko Errege Jauregian filmatutako *Love's Labours Lost* (*Galdutako amodiozko lanak*) ikusi ahalko da.

Aurtengo edizioan, emakumezko aktore bikainak izango dira jaialdian, **Concha Velasco** esaterako; *Reina Juanari* bizitza emango dio Ernesto Caballeroren testuarekin eta Gerardo Veraren zuzendaritzapean; **Nuria Gonzalez** ere izango da *Las harpías en Madrid* komediaren protagonista izanik. Programatutako beste obretako bat **Ana Zamora** zuzendariaren *El triunfo del amor* da, Juan del Enzinenaren testu eta musiketara oinarrituta; eta *Oymyakon*, **Jose Andres Lopez**-en dramaturgia eta zuzendaritzarekin.

Antzerki klasikoaren proposamen garaikideak

Antzerki Klasikoaren Jaialdiak OT4OS KLA2IKO2 (Beste klasiko batzuk) atala ohikoenak ez diren proposamen eszenikoetara bideratzen du. Ikuspegi berritzaile, apurtzaile eta ausartak aurkezteko testu klasikoak erreferentziatzen dituzten konpainiak. Oraingoan, hiru proposamen programatu dira La Cavan eta beste bat jauregian.

Atal honetan Nafarroako Antzerki Eskolaren aholkularitza jaso da, eta azken horrek La Cavan aurkeztuko diren hiru obrak hautatu ditu: Alauda Teatroren *Macbeth, ya somos el olvido que seremos*; Viviseccionados konpainiaren *Oymyakon*; eta antzerki-ikerketako TNT Centro Internacional-en *Restos/Fedra*.

Nafarroako konpainiekin konpromisoa

Jaialdia Nafarroako konpainiei lotzen zaie, eta haiei begira prestatu da ondorengo programazioa:

- Jaialdiak apustu berezia egin du hizkuntz eszeniko berrien, sormenaren eta ikerketaren alde, **egoitza-laboretegi** proiektuarekin adibidez; lehen aldiz ireki da edizio honetan, eta proiektu artistiko baterako da. 6.000 euro ditu, eta jaialdietan hautatutako konpainiak lan-egonaldi bat egingo du Erriberriin.

- Hurbileneko antzerki-taldeek ere **Yayo Cacerese** uztailaren 23an eta 24an emango dituen tailerretan ere parte hartu ahalko dute. Aktoreen jarduna diziplina anitzeko ikuspegi batetik jorratuko da, eta haren barnean eduki oso zabalak sartuko dira, erritmoa, musika, interpretazioa eta kirola interpretazio-lanean, esaterako. Masterclass horrek Kultura Departamentuak duela edizio batzuk hasitako bidea indartzen du, aktoreen prestakuntzaren alde eginez tailer eta masterclass-en bitartez.

- Azkenik, Nafarroako antzerki-taldeek **Jaialdiko Mikroantzerki**aren atalean parte hartuko dute, eta sei **konpainia nafarrek** parte hartuko dute bertan: Producciones Maestras (No es tan feo... visto de cerca), Victor Iriarte eta Laura Laiglesia (Planto del soldado 1º), Miguel Munárriz (www.principe.virtual), Átikus Teatro (Rinconete y Cortadilla), TDiferencia (Off Elia. La clásica comedia) eta Hoidek Producciones (Juicio al mercader).

Familiaretzako antzerkia eta kale-antzerkia

Erriberriko Antzerki Klasikoaren Jaialdia jende guztiarentzat da. Arrazoi hori dela eta, asteburuan ere antzerki-ikuskizunak programatu ditu doan jauregiko plazetan eta arma patioan, familiei begira.

Sevillako Teatro Clasico-ren *Don Quijote en la Patera* uztailaren 24an egingo da La Cavan, eta haurrek agertoki horretan beraientzako obra bat ikusteko aukera izango dute.

Antzerki inklusiboa

Iaz dagoeneko, jaialdia jende guztiari zabalduko programa bat eskaintzeko asmoz lan egiten hasi zen: alde horretatik, La Cavako bi obra nagusi begizta magnetiko batekin eskaini ziren eta azpigituluekin ikusteko eta entzuteko arazoak zituzten pertsonentzat.

Oraingoan, beste bi obra emango dira La Cavan ezaugarri horiekin: "Ricardo III" uztailaren 29an eta "Trabajos de amor perdidos" abuztuaren 6an.

Gainera, familientzako obretako batean, "Los chismes del Quijote y su amigote" (uztailak 22, doan) keinu-hizkuntzako interprete baten laguntza izango da.

Sarreraren salmenta

Sarrerak sarean salduko dira, www.culturana Navarra.es eta www.baluarte.com webguneetan bihar, hilak 22, hasi eta ekainaren 30era arte, eta sarrera bakoitzeko 0.95 euroko komisioa kobratuko da.

Zuzeneko salmenta ere izango da Baluarteko leihatilan, ekainaren 30etik uztailaren 5era ohiko ordutegian, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara astelehenetik larunbatera. Uztailaren 19tik aurrera eta abuztuaren 6ra arte, salmenta hori Baluarteko atondoan egingo da 11:00etatik 14:00etara astelehenetik larunbatera.

Eta uztailaren 19tik eta jaialdiak iraun bitartean Erriberriko Ardoaren museoan ere leihatila bat jarriko da.

Sarreraren prezioak aldatu egiten dira funtzioen arabera, baina baita ekainaren 30a baino lehen edo ondoren erosten badira ere eta sarean edo leihatilan erosita. Gazte txartela duten titularrek deskontu garrantzitsuak izango dituzte. Prezioak ondorengo [esteka](#)n kontsulta daitezke.

Jaialdiak La Cavako asteburuetako 6 obretarako abonua oso bat jendearen esku jarri du ere (familiarra ez da sartzeko) eta OT40S KLA2IKOS zikloko 3 obratarako; beste abonua bat La Cavako asteburuetako saioetarako bakarrik, eta beste bat, OT40S KLA2IKOS zikloko hiru saioetarako.